

«Mundu digitalak ere egurra behar du»

Otu al zaizue sekula pelikula bat gidoia irakurri ahala ikustea? Anttoni bai. Besteen tranpatxoak aztertzen ibiltzen denari, ordea, nola azalarazi bereak? Binetak aterako ez dizkigulakoan...

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Artea eta sormena letretako ikasketei suposatzen zaizkie ia beti. Zu Fisikan matrikulatu zinen...

Bote-prontoan eta hausnartu gabe egindako suposizioa iruditzen zait. Azazkalarekin azaleko pintura kendu eta ohartzen gara ikasketa zientifikoek beti izan dutela marrazkiaren beharra ondorioak azaldu eta adierazteko. Alderantziz, artearen gogoeta sakonenetan beti egon da zientzia presente, aurrera egiteko logikak eta irizpideak markatzerako orduan. Suposatzen da artista intuitiboagoa dela, emozionalagoa, baina horrek ez du zientziari zor zaion hausnarketa puntua ukatzen. Hori hala, unibertsitateak kuriositatearen, metodologiaren, eta errealitateak egiaztatu eta gezurtatzeko sistemen haziak erein behar ditu. Umorea egiteko ezinbestekoa da hori. Nola aterako diogu etekina gure berezko tresneriari ez badaukagu teknika minimorik?

Unibertsitateak gizartea sailkatu eta lerrokatzeko teknikak ematen ditu, alta. Zuk non kokatzen duzu zure burua?

Sailkatzeak etiketatzea dakar, eta zerbait gorroto badut munduan, etiketak dira. Onartzen dut iruzurrik gabeko etiketatzeak egosten ari denari buruzko informazioa eman dezakeela, baina bestela ez dit pito graziarik egiten. Etiketek ezusteak eta atzera bueltatzeko bideak deuseztatzen dituzten heinean kondenatzen dute plazera. Hain daukagu dena sailkatuta daramagun bizimodua eramateko txerto bat sartu digutela dirudiela. Beldur handiena horren azpian dagoen kontrol-nahiak ematen dit, ordea. Ezer etiketatzen den unetik kontrolpean dago. Baina zergatik? Zertarako? Nork kontrolatzen du? Beste gauza bat da, ibilbide batean zehar egindako aukerek eta erabilitako lan-moldeek zure ADN artistiki-

Nortasun agiria

1946an sortu zen Usurbilen. Fisikako ikasketak hasi, eta Arte Ederretan lizentziaturik bukatu zuen, horrek marrazkia ofizio bihurtzera eraman zuelarik. Euskal prentsako ohiko kolaboratzaile, liburu-azal anitzen egile, sari zenbaiten irabazle, Zakilixuten eguneroko agerraldiengatik eza gutzen dute gehienek.

koa harilkatzeko modua eskaintzea. Baina utikan etiketak!

Zein da zure ADN artistikoa?

Ez zait pitorik gustatzen atzera begiratzea. Sortzaileak taxuz eta gustuz lan egitekotan horizontea aurrean behar du. Badaki horizontea 360° dituela, buruari bueltak ematen dizkio, kontziente da aurrera egiten badu atzekoari esker dela. Hori esanda, ez diot zentzurik ikusten ibilbideez mintzatzeari ez bada akatsak zuzendu eta norabide berriei buruzko pistak hartzeko. Denok dakigu ibilbide bat dugula atzean, baina nola begiratu behar diogu distantziarik gabe? Nola egin auto-engainuan ez bizitzeko? Nik begirada konpartituetan sinesten dut, baina lantegi

nekeza da, sortzaileak ezin duelako egiten duena zehazki bizi duen moduan komunikatu. Asko jota, pistak emango dizkizu.

Emazkidazu pistak, Zakilixutekin egiten duzuna kazetaritza da?

Egunkari baterako eta egunkari batean sortu nuen pertsonaia. Darwin zuzen bazebilen, bere burua gaintitu eta biziraun ahal izateko, kazetaritzari lotuko zitzaion eta medio horretan defendatzen ikasiko zuen. Tarteka alde egiten duela? Heterodoxia hori zilegi zaiola uste dut, albiste eta gaurkotasunetik at dauden eta kazetariak ez diren kontu batzuk aipatu ditzake. Dena dela, Zakilixut egunkari batean bizi da, eta medioak agintzen du.

A close-up portrait of Antton Olariaga, an older man with a grey beard and mustache, wearing a dark blue sweater. He is looking slightly to the left of the camera. The background is a bright window with a grid pattern.

**Antton
Olariaga**
• PERTSONAIA •



Teletipoen kazetaritza kamutsa ari da gailentzen erredakzioetan.

Teknologiak informazioa eskuratzeko ahalmenak biderkatu ditu, baina ez dakit hori guztia prozesatzeko gai garen. Berri agentziek sortzen eta kudeatzen dituzten kliseak dependentzia estandar izugarria hedatu du. Lan grafikoan ari denaren obligazioa da kontra-puntua topatzea, ez baitezpada originaltasuna bilatuz, baina bai zerbeit ezberdina esateko bidea eginez. Zakilixutek mundu guztiak ikusten dituen bezala ikusten ditu gauzak. Ideia potolo eta orokorrak zabaltzetik sermoia botatzera marra fin-fina dago, ordea, eta ez badituzu zure gauzak, zure erara, eta zure kontraesanekin azaltzen, alferrik ari zara.

Nola egiten zaio gaurkotasuneko albisteen zurrunbiloari ihes?

Zurrunbilo hori kontradikziozko paisaia bat baino ez da. Atzo lehen orrian sei zutabetara zetorren notizia gaur ez da agertu ere egingo. Ez dago jarraipenik. Zergatik? Albiste bakoitza iragarki kanpaina bat da? Nik ez

Konpartitu

“Plazer handienetakoa da, artista batekin egon, zuzenean bere lana nola ikusten duen jasotzea. Hori bai, lanak oraintsu egindakoa behar du, bere memoria nirea bezain traidorea izango da-eta”.

nuke esango zurrunbiloari ihes egiten diodanik. Koadrotik kanpo dagoena erakusteko derrigorrezkoa zait koadro barrukoaren presentzia. Horregatik, zurrunbiloari ez, zurrunbiloaren morrontzari egin behar zaio ihes, etengabe kontra-puntua bilatuz.

Mundu digitala omen paperaren kontra-puntua. Nola daramazu bi euskarrien elkarbizitza aro hau?

Gu paperaren tradiziokoak gara. Letren MP3a aspaldi asmatu zen liburuarekin. Sekulako luxua iruditzen zait liburu bat mendi puntan, autobusean, edo etxeko sofan whisky bat edanez gozatu ahal izatea. Hori hala, beste euskarri batzuk garatzen eta gailentzen ari direla ukalezina da. Ondorioz, beste jite bateko albisteak aterako dira, beste era batera sailkatuko da informazioa, eta sortu ere, hori dena kontuan hartuz sortu beharko da. Etengabe zer gerta egon beharreko garai apasionantea egokitu zaigu. Izan ere, berrikuntza hauen aurrean zintzotasun, zorrotzasun eta profesionaltasun handiz jokatu behar dugu, ez

utzikeriaz, nobedadeak dena onargarri bihurtzen duela pentsatuz. Gerora eragin-korra izango bada mundu digitalak ere egurra behar du, berrikuntzak berrikuntza, euskarri guztiek ganbara ondo jantzita edukitzea eskatzen baitute.

Artistaren prestakuntzan behar beste lantzen ahal dira ganbara janzteko pistak?

Hori kontra-heziketaren lana da. Heziketak, kritiko izan eta egoera berrietara ohi-tzeko baliabideak eman beharrean, guztiak berdin jarraitzeko armak ematen dizkigu. Berez ez dago ganbara janzteko formula-rik, baina bai arlo zientifikoan, bai sorkuntzan, kuriositatea giltzarria iruditzen zait. Hori etengabe elikatu beharra dago, eta galtzerakoan, landarea ihartu egiten da. Sorkuntza librea, askatasuna, oso kontzeptu politak dira, baina ez dizute folio zuria- ren aurrean zer egin erakusten. Horretan sinesten duenak, edo engainatuta bizi da, edo alderantziz irakurri du liburua. Kuriositateak emango dizkizu pistak, eta curiositateari lagundu behar zaio.

Zer esan nahi duzu, sorkuntza libreak norbere burua ondo hesitua ukaitea eskatzen duela?

Libre hitza etiketa besterik ez da. Zer da marrazten duguna? Irentsi dugunaren sintesia. Sekulako konpota daukagu ganbaran, eta konpota zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta askeagoa zara lanerako orduan. Zientzialari batentzat denon bistan zegoena desberdin lotzean datza aurkikuntza. Ba horixe da artea. Askok ezkortasuna leporatuko didate, baina ikuspegi operatiboa baino ez da. Ezuste txiki horiek poz handiak dira niretzat.

Mintza gaitzen ikuspegi operatiboaz. Zenbat aldatzen da marrazkia burutik papererako bidean?

Ofizioak geroz eta estuago egiten du bide hori. Teknika ez ezagutzeak asmo aberats eta

Olariaga da Zakilixut?

“Aspalditik dakigu Johny Weissmuller ez dela Tarzan eta fikzioaren arauekin jokatu behar dela. Pertsonaia bat eraikitzen duzun momentutik autonomia minimo bat hartu behar du, baina jakina, nire galdera asko berari pasatzen dizkiot. Trukua ematen du baina ez da”.

ugarietara zaramatza, baina arazo teknikoan jabe izateak hankak lurrean jartzen dizkizu. Ofizioak zorrotzago bihurtzen zaitu, zure gauzak sintetizatzen behartzen, baina horrek arrisku handi bat dauka: hermetiko bihurtzea. Marrazki bat paperean gauzatu aurretik buelta asko ematen ditu buruan, eta epea gainera datorrenean ez bazaizu ateratzen, baztertu eta kito. Zure porrota onartzen jakin behar duzu, ofizio barruko araua da. Hori gertatzen zaidanetan, ez nuela aski informazio pentsatzen dut, edo besterik gabe, egun motela nuela. Porrot hori gainditzeko modua zein den? Hurrengoan marrazki hobea egitea. Esperientziak asko laburtzen dizu burutik papererako bidea, baina profesionala bazara, eta zorrotz bezain duin jokatu nahi baduzu, badakizu zenbateraino luzatu behar duzun buelta. Horregatik ez zait gustatzen atzera begiratzea. Biharkoa beti da berria.

Berriaz gain, originala beharko du, kopia kondentatu dugunetik.

Arte munduko iraultzen ondorioz, originaltasuna errekonozimendua eta prestigioa ematen duen sari bihurtu da. Originala ez dena anonimoa da, masaren puntu ñimiño bat baino ez. Horrela gabilta denok nabarmentzeko zeinek gauza arraroagoak egingo. Horrek ez garamatza inora. Noiz konturatu-ko gara iturgin edo zurgin on bat zer den? Inolako originaltasunik gabe txukun eta taxuz lan egiten duena, eraginkorra. Horrek ez du esan nahi jenioei atak itxi behar zaizkienik, baina gainontzekoei... Nire ustez kopia ona den bitartean, ez da ehuneko ehun-ean kopia izango, egilearen eskua antzemango da, eta ñabardura horiei geroz eta estima handiagoa diet.

Irudiaren gizartean bizi garen arren, ba al dakigu irudien ñabardurak irakurtzen?

Alfabetatze bisualean sekulako gabeziak daukagu. Hitzaren laguntzarik gabe irudia

JEXUX ARTZE Kultur Elkarteak antolatuta...

Maiatzak 9 • 22:30tan • Usurbilgo Oiarde Kiroldegian

“Nömadak TX zuzenean”

Oreka Tx taldearen ikuskizun berria

Oreka Tx-ek txalapartarekin bidaiatu du. India, Laponia, Sahara eta Mongolian jasotako ikus-entzunezko materialarekin gauzatu da “Nömadak Tx Zuzenean” ikuskizun berria.



Agertokian atzealdeko pantailan kanpoko musika eta irudiak uzartzen dira. Taula gaineko instrumentazio aniztasunak txalapartaren garapena sustatzeko gune berri eta egokia bihurtzen dute ikuskizun hau.

Sarrerak Usurbilgo Lizardi liburudendan: 10 euro alde zurretik eta 12 euro egun berean



AZKEN HITZA

Borobila

“Binetak borobila behar du, ez ezer falta, ez ezer sobera. Baina zirkulu hori itxi ezean espiral bihurtzen da, geroz eta espiral zabalagoa, eta zirkulura itzultzea izugarri kostatzen da. Pentsa, batzuetan ez dago modurik, baina borroka hori gabe aspergarria eta kamutsa litzateke guztia”.

irakurtzea oso zaila egiten zaigu. Seinaletikarena irentsiago daukagu, eta askotan, ikono guztiak seinaleztat hartzen ditugu, sinplifikazio handiegiz. Irakurketa aberatsak egitea nekeza da, alfabetatzea eskatzen du, pixkanaka saiatzea. Gizartea artearen itsasoan erabat murgilduko bada, gozatu irakurri eta irakurriz gozatu beharko du, bestela... Guk ez bezala, publizitateak asko landu duen arlo bat da, eta ezin hobeto daki gure inkontzienteak nola interpretatzen dituen irudi jakin batzuk. Mundua irudiarena izango da, baina irudiarena mundu bat da.

Eskolan denok ikasten dugu idazten baina gehienak ateratzen gara marrazten jakin gabe.

Tira, ez dugu idazten ikasten, letrak egiten baizik. Idazten jakingo bagenu gaitz-erdi. Eskolentzat komunikazioa ez dela existitzen ematen du. Nahi dudana nola esan ahoz, idatziz eta irudiz. Ez dago besterik. Sistema horretan zentratzen ez den bitartean alferrik da. Esaterako, benetako ahozko azterketa baterako prestatuz, gerora eraginokorra izateko teknika mordoa ikas liteke, baina... Hitzak moldatzen irakasten ez bada, irudiekin has-tea gehiegi eskatzea izango da, ezta?

Artista bati beste diziplinetako artistekin nahastea gehiegi eskatzea da?

Despedida

“Uzteko edo segitzeko arrazoi asko daude: emozionalak, egunerokoak, artistikoak... Askotan, tranpa ere bada, uzteak berriz hastea baitakar. Seigarren despedidan ‘adio’, zazpigarrenean ‘adio betirako’, zortzigarrenean ‘adio beti-betirako’....”.

Gaur egun proiektu bat aurrera ateratzeko, ezer baino lehen, baliabide ekonomikoari erreparatzen zaie. Proiektua produktu bihurtzeko salgarria izan behar da. Horrek izugarri baldintzatzen du dena, eta ez krisi garaian gaudelako, berez. Ez dut uste idea edo ekimen falta denik. Telebistak izango luke horrelako gauzak bultzatzeko aukera, baina tira, horrek telebista programa interesgarrien faktoria izatea suposatuko luke, eta hori beste gauza bat da.

Kontziente zinen horretaz euskaraz marrazkigintzatik bizitzea ezinezkoa zela esaten zizutenean?

Bai zera, merkatua, produktua, parametro ekonomikoak, hitz horiek oso berriak dira, gure hiztegietan ez ziren existitzen. Oso bestelako giroa zen. Nahiko erraz alda zitezkeen ofizioz, fluktuazio handiko sasoiak ziren. Egunerokoarekin aski genuen orduan, eta konfiantza inozo horrekin egiten genuen aurrera. Garbi neukan nire gogoia marrazkigintzara dedikatzea zela, euskarak eta sormenak izan behar zutelana nire lanbidearen oinarri. Sumatzen nuen asko neukala ikasi eta esploratzeko bi arlo horietan, eta aurrera begiratzean, abentura handi bat ikusten nuen. Ez dakit zehazki zein ziren gure lan-baldintzak, baina bada-ki oso berandu heldu zitzaizkigula kontratuak. Jabego intelektuala herenegungo kontua da guretzat. ■